

PLAYBACK LEHIAKETAREN OINARRIAK

PARTE-HARTZAILEAK: 2 kategoria:

- 8-10 urte bitarteko gaztetxoak (LH3-LH4ko ikasleak).
- 10-12 urte bitartekoak (LH5-LH6ko ikasleak).

Taldeak gutxienez 4 lagunez osatuak izango dira, eta gehienez 10 lagunez.

KANTAK:

Euskarazko kanta bat aukeratu behar da. Taldeak 2 minutu eta erdi izango du eszenatokian aktuazioa egiteko.

IZENA EMATEA: 2025eko azaroaren 21a baino lehen. Taldea aurkezteko bideotxo laburra bidali euskara@basauri.eus helbidera. Basauriko ikastetxeen bitartez lehiaketan parte hartzeko izena eman dutenek ez dute berriz egin behar.

EPAI-MAHAIA: Basaurikoak diren edota Basaurin lan egiten duten 3 lagunek egingo dute epaimahai lana. Kultura, musika eta dantza munduan aritzen direnak izango dira.

Epaimahaiak baloratuko ditu:

- Ahoskatzea eta imitazioa.
- Animazioa.
- Benetako musikariarekin edo musika taldearekin gordetzen duen fideltasuna eta antza.
- Karakterizazioa.
- Koreografia.
- Eszenatokiko aurkezpena.

SARIAK:

1. Kategoria:

1. Saria: Taldearentzako bonoa Artunduaga kiroldegian ordu 1 eta erdi paddlean/rokodromoan/taldeko kirolean aritzeko (monitorearekin) eta Artunduaga jatetxean merienda hartzeko.
2. Saria: 100 €ko bonoa Basauriko saltokietan gastatzeko.

2. Kategoria:

1. Saria: Taldearentzako bonoa KNS multiabentura parkera joateko.
2. Saria: 100 €ko bonoa Basauriko saltokietan gastatzeko.